

# KARDINALAK GILTZAPEAN



Nagore Irazustabarrena  
Uranga

@irazuabarrena

Estatu Pontifikalak, 1241eko abuztuaren 22a. Gregorio IX.a aita santua hil zen, eliza katolikoaren eta Erromatar-Germaniar Inperio Sainduko enperadore Frederiko II.aren arteko gatazka betean. Garai hartan Kardinalen Kolegioa osatzen zuten hamabi kardinaletatik bi gatibu zeuzkan enperadoreak. Gainerakoak zatituta zeuden, iritzi eta interes desberdinak medio. Nola lortu enperadorearen eragin zuzena saihestea eta kardinalak luze gabe aita santu berria aukeratzea?

Matteo Rosso Orsini senatariak egoerari kirtenetik heldu zion: hamar kardinalak Erromako eraikin zahar batean, erortzear zegoen Septizonio jauregian, giltzapean (*cum clavis*) sartzeko agindua eman zuen. Guardiak jarri zizkien, hautesleek alde egingo ez zutelako ziurtatzeko. Elizako goi karguen zerbitzariak ere ez ziren sartzen utzi, eta janari urritasunari Erromako udako bero itogarria erantsi zitzaion.

Bi hilabete eman zituzten baldintza estu haietan, baina ez denek. Robert Somercotes ingelesak, enperadorearen aldekoa bera, hilabete inguru besterik ez zuen egin giltzapean, irailaren 26an hil baitzen, itxuraz goseak eta beroak jota: bere aldeko kardinalak Somercotes pozoituta hil zutelako salatuta zuten. Baina ez litzateke harriztekoa higie eta osasun baldintzen ondorioz gertatu izana. Beste bederatziei ez zieten haren elizkizua



Gregorio IX.a aita santua (miniaturako lehen bi binetetan gorritz jantzita) hil zenean, haren ordezkoa bilatzeko giltzapean sartu zituzten kardinal hautesleak, historiako lehen konklabean.

netara joateko irtetzen utzi, medikuei ere ez zieten egonaldi osoan sartzeko aukerarik eman, gorozkiak pilatuz joan ziren... Romano Bonaventura kardinala *sede vacante* aldia amaitu eta hilabete batzuetara hilko zen, eta heriotza itxialdi gogorriari egotziko zioten. Goffredo da Castiglione Sabinako apezpikuak are gutxiago iraun zuen bizirik.

Azkenean, Castiglione aukeratu zuten aita santu. Zelestino IV.a izena hartu zuen eta handik hamazazpi egunera hil zen, azaroaren 10ean, kontsakraziorako ere astirik gabe. Erabaki gutxi hartu ahal izan zituen, horien artean Matteo Rosso Orsini eskumikatzea.

Badirudi, luzeago bizi izan balitz, Castiglione ere enperadorearen aldeko joerari helduko ziola. Hala ere, hori ez zitzaion axola beste kardinali. "Ahula,

ezjakina eta fanatikoa" omen zen, baina hori ere ez zen traba izan haren alde bozkatzeko. Sabinako apezpikua zaharra zen, osasun arazoak zituen, itxialdiak erremate eman zekioken eta, hain zuzen, horrek guztiak egin zuen bereziki *papabile*. Behin-behineko aita santua nahi zuten, konpromisozkoa, bide laburra egingo zuena, baina gabeziak betetako jauregi zahar hartako ateak irekiko zizkiena.

Bigarren konklabea lehena bezalakoa izango zen beldur, kardinalak Erromatik ihes egin zuten eta ez ziren 1243ra arte itzuli. Bi urte pontifizerik gabe egon eta gero Inozentzio IV.a izendatu zuten eliza katolikoko buru.

Horrenbestez, lehen konklabea ez zen eraginkorra izan, baina handik aurrera kardinalak giltzapean sartuko zituzten aita santua aukeratzeko. ■



LIFE

## Frantziar Erresistentzia ez hain frantziarra

Bigarren Mundu Gerraren ondoren Frantzia eraiki zen diskurtsoaren arabera, herrialdea Erresistentziak askatu zuen, frantziar ia guztien babes heroikoari esker. Berriki, Oxfordeko Unibertsitateko Robert Gildea historialariak, *Fighters in the shadows* liburuan, bertsi horren pitzaduretan sakondu du. Haren esanetan, erresistentzia ez zen

hain frantziarra izan, atzerritarrek pisu handia izan zuten mugimenduan eta historialariak nahiago du "Frantziako erresistentziak" hitz egin. Gainera, ez omen ziren De Gaullek berak esan bezain gaullistak; komunistek rol erabakigarria jokatu zuten. Azkenik, emakumeek izan zuten garrantzia ere aitortu nahi izan du Gildeak. ■